



## OÑATI. GAZTEEN LOKALAK

GAZTEEN LOKALEN FENOMENOAREN INGURUAN HAUSNARTZEKO ETA ELKARBIZITZA PROTOKOLOA OSATZEKO GOGOETA PROZESUA, 2014-2015

**2015-02-11. / 1. SAIO BATERATUA**



### BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 1. Saio bateratua
- Xede taldea: Gazte lokalen erabiltzaileak, bizilagunak, jabeak eta adin txikiko erabiltzaileen gurasoak
- Data: 2015-02-11
- Lekua: Gaztelekua
- Hasiera ordua: 18:30
- Amaiera ordua: 20:45

### DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 20 lagun, 11 emakume eta 9 gizon
- Dinamizatzaileak: Nerea Zubia (Parte hartze arloko zinegotzia), Ion Lopez (Gazteria teknikaria), Arkaitz Martinez de Albeniz eta Markel Ormazabal (Aztikerreko bideratzaileak)

---

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

---

Nerea Zubiak saioaren ongi etorria egin du.

Abiatutako partaidetzazko prozesuaren fase berrian sartzan garelako gogorazi eta orain arte emandako urratsen laburpena burutu du.

Era beran udalaren aldetik helburua ez dela hasiera batean behintzat, Araudi edo ordenantza bat burutzea, baizik eta lokalen inguruko baldintza minimoak definitu eta elkarbizitzarako prozedura bat zehaztea.

Ion Lopez, Oñatiko gazteria teknikariak prozesuaren kokapena egin du.

Gazte lokalen fenomenoak gaur egungo gazteen antolatze eta aisialdia kudeatzeko modu gisa ulertzen da eta errealitate hobeto ulertzeko prozesua dela hau.

Ondoren aurkezpen honen ondoren Arkaitz Martinez de Albeniz Aztikerreko bideratzaileak prozesuaren kokapena burutu du:

- Orain arte alde desberdinekin bilerak burutu dira eta bakoitzak gazte lokalen fenomenoak nola ikusten duen gogoetatzeko saioak izan dira.
- Hemendik aurrera ikuspegiak bateratu eta proposamen bateratuak sortzea izango da helburua. Honetarako 3 saio bateratu aurreikusten dira: gaurkoan elkarbizitza eta harremanei eskainiko zaiela garrantzia argitu, 2.saioan elkarbizitzarako proposamen zehatzagoak burutuko dira eta lokalen baldintzen inguruko proposamenak jaso eta 3.saioan adostasun eta desadostasunen gainean lan egingo da.

Orain arte sortutako edukiei dagokionez modu honetan laburbildu dira aktore bakoitzaren beharrak eta garrantziak:

- Gazteek batez ere askatasuna eta espazio propioari egiten diote aipamen.
- Bizilagunen kasuan errespetua eta deskantsuaren inguruko beharrak zehazten dituzte.
- Jabeen kasuan lokalen errentagarritasun eta hauen segurtasunari erreparatzen diote.
- Eta gurasoen kasuan modu nabarmen batean lokalen segurtasunari eta euren seme-alabek garatzen dituzten jardueren inguruko ezagutza nahia.

Azkenik dinamizatzaileak gaurko saioan abiatzen den prozesuaren faseen ezaugarritzearen inguruko hainbat aipamen burutu ditu.

Helburua, alde desberdinen beharrak asetuko dituen espazio komuna sortzea izango da, non denek zerbait irabaziko duten eta bidean zerbait utziko duten. Alde guztiek egin beharko dute gaur egungo posizioetatik mugimendu bat helduleku komun horretara heltzeko.

Hurrengo saioetan landuko ditugun aspektu batzuk argitu ditu dinamizatzaileak:

- Fenomeno honen inguruan alde guztiek dute erantzukizuna eta xedea ez da izango errudunak bilatzea baizik eta bakoitzaren erantzukizunak zeintzuk diren ikusi eta honen arabera bakoitza zer egiteko prest dagoen ikusi.
- Prozesu honekin adostasuna bilatuko dugu aldeen beharren artean, eta honek ez du esan nahi denek iritzi berdina izan behar dutenik, baizik eta alde guztien beharrak asetuko dituen formulazio batean ados egotea.

*El proceso de reflexión sobre los locales se adentra en una fase en la que trabajarán las diferentes partes de manera conjunta y el objetivo va a ser consensuar fórmulas en las que se vean las necesidades que tiene cada colectivo, teniendo en cuenta que para crear un espacio conjunto cada cual deberá mover su posición. El espacio conjunto deberá cubrir las necesidades principales de cada parte. Para ello realizaremos 3 reuniones conjuntas.*

## 2. TALDE DINAMIKA. NIRE ESPAZIOA

3 talde txikitan banatuta bakoitzarentzat inportantea den espazioaren inguruko gogoeta egin dute partaideek. Taldeak honela banatu dira:

- Gazteak
- Bizilagunak eta gurasoak
- Jabeak

Gogoeta honen helburua bakoitzak erabiltzen duen espazioak duen garrantzia zehaztea eta gainontzeko kideei azaltzeko moduko gogoetak burutzea.

Talde bakoitzean bina galdera luzatu die dinamizatzailak. Hona hemen taldeetako gogoetaren emaitzak:

BIZILAGUNAK		GURASOAK		GAZTEAK		JABEAK	
ZER DA ETXEA NIRETZAKO?	ZER NAHI DUT ETXEAN GUSTURA EGOTEKO?	ZER DA LOKALA NIRETZAKO?	ZER BEHAR DUT NIRE SEME-ALABAK GUSTURA EGOTEKO?	ZER DA LOKALA NIRETZAKO?	ZER BEHAR DUT NIK LOKALEAN GUSTURA EGOTEKO?	ZER DA LOKALA NIRETZAKO?	ZER BEHAR DUT LOKALEAN JARDUERA GARATU AHAL IZATEKO?
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nire etxea DENA da</li> <li>• Relax eremua, lasaitasuna, segurtasuna eta babeslekua</li> <li>• Familiak elkarbizitzen duen lekua da etxea</li> <li>• Familia elkartzeko espazioa da</li> <li>• Etxea erosterako uanean baldintza hauek betetzea bilatzen dugu</li> <li>• Bilatzen dugun beste aspektu bat inguruak ahalik eta gutxien eragitea da, horrek elkarbizitzan eta norberaren osasunean eragiten duelako</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Isiltasuna eta lasaitasuna</li> <li>• Bizilagunekin elkarbizitza ona, baita lokalekin ere</li> <li>• Errespetua</li> <li>• Harremana eta interlokuzioa, bide batzuk zehaztea</li> <li>• Gauza batzuk mugatzea (adibidez baloiarekin jolastea)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Buru haustea</li> <li>• Kezka (errespetua bizilagunentzako)</li> <li>• Gainkostua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lokalean segurtasuna izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkartzeko lekua</li> <li>• Elkarbizitzako lehen esperientzia</li> <li>• Nahi dugun moduan gestionatzen dugun espazioa</li> <li>• Hotza ez pasatzeko lekua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akondizionamendua</li> <li>• Argiaren potentzia egokia</li> <li>• Musika</li> <li>• Ordutegi librea</li> </ul> <p>Lokalak ere badauzka alde negatiboak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egun osoa lokalean ematea</li> <li>• Lokalean apalankatzea</li> <li>• Baina lokala berez ez da arazoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Es una parte de un edificio</li> <li>• Un local de venta</li> <li>• Un dolor de cabeza</li> <li>• Un local para sacar rentabilidad al espacio</li> <li>• La base de la columna del edificio</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletik abiatutako normatiba gure eskubide eta betebeharrak ezagutzeko</li> </ul>

### 3. PLENARIOA

Hiru taldeak plenarioan elkartu eta talde bakoitzak bere taldean sortutako edukiak aurkeztu ditu taldearen aurrean.

Ondoren, partaideen artean elkarri galderak egiteko tarte zabaldu dugu, zalantzak argitu eta bakoitzaren posizionamendua argitzeko espazioa sortuz.

- Gazte batek adierazten dute gazteek lokaletan nahi dutena etxeetan bezala egoteko moduko leku bat izatea, horretarako ordaintzen dute eta alokairua, gazteek nahi bezala erabili ahal izateko lokala.
- Guraso batek adierazten du zilegia iruditzen zaiola gazteek lokala nahi bezala erabili nahi izatea eta inportantea dela horretarako baldintza seguru batean burutu ahal izatea jarduera.
- Gazteen aldetik adierazten da lokala nahi bezala erabili ahal izateko ordutegi librea izatea ezinbestekoa dela
- Jabe batek zehazten du ez dela zilegia gazteek lokalaren ordutegirik nahi ez izatea, beste lokaletan bezala muga batzuk ezarri behar direla.
- Bizilagun batek adierazten du lokalen kanpokaldean eragiten direla arazo asko, txizak direla eta sortzen diren bestelako eragozpenengatik
- Gazteek adierazten dute beraien aldetik borondatea badagoela bizilagunekin harremana izateko, lokal batzuetan elkartu izan direla bizilagunekin

Ondoren, behin alde bakoitzaren beharrak zehaztuta eta zalantza batzuk argituta ESPAZIO KOMUNAREN inguruko gogoeta burutu dute partaideek, alde guztiak batzen dituen beharrak zehaztea alegia.

Galdera honi erantzun diote partaideek:

#### Zer da konpartitzen duguna?

- Segurtasunaren inguruko kezka
- Leku propio bat nahi izatea
- Komunikazioa
- Errespetua



*Las necesidades que cada una de las partes ha indicado son las siguientes, en respuesta a la pregunta: ¿qué necesito para estar en mi local/vivienda?*

JÓVENES	VECINAS	DUÑAS	PADRES Y MADRES
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Horarios libres</li> <li>• Mejoras en la infraestructura del local</li> <li>• Unos mínimos de seguridad</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tranquilidad</li> <li>• Convivencia</li> <li>• Respeto</li> <li>• Comunicación</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Una normativa que explicita derechos y obligaciones</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Seguridad</li> </ul>

*Si bien estas han sido las necesidades detectadas por cada una de las partes también hemos hablado sobre el espacio común en el que todas las partes se sienten reflejadas y comparten las necesidades. Estas son las necesidades compartidas:*

- La seguridad de los locales
- Tener un espacio propio
- Buena comunicación
- Respeto

## 4. TALDE DINAMIKA

Hurrengo dinamikaren helburua gazte lokalen fenomenoaren inguruan eragiten duten faktore desberdinak mahai gainean kokatzea eta fenomenoaren osotasuna aitzat hartzeko gogoeta burutzea izan da.

Modu honetan partaide bakoitzari orain arte egindako saioetan agertutako elementu eta behar desberdinak adierazten dituzten kartulina banatu diogu.

- Lasaitasuna
- Zarata
- Autogestioa
- Mespretxua
- Segurtasuna
- Askatasuna
- Deskantsua
- Ezezagutza
- Estresa
- Elkargunea
- Indefentsioa



Egoera bat aukeratu dugu: larunbat gau bateko egoera.


Egoera honetatik abiatuta interakzio horretan parte hartzen duten elementu desberdinei ahotsa eman diete partaideek.

- **Lasaitasuna.** Lokalean geratzea
- **Zarata.** Ez daukat ezer esateko, asko hitz egiten dute nitaz.
- **Autogestioa.** Ardura eta errespetua
- **Mespretxua.** Begirada gurutzatu asko daude. Lokalengatik ordaintzen duguna eta lokala dagoen egoerarekin mespretxatua sentitzen naiz.
- **Segurtasuna.** Lasaitasuna sentitzen dut.
- **Askatasuna.** Leku askotan dagoela, gazteekin eurek nahi dutena egiteko eta bizilagunekiko begirunez jokatzuz bizilagunekin ere dagoela, bizilaguna bere etxean aske izan nahi duelako.
- **Deskantsua.** Lokal askotan apurtuko naute. Lokalak ez dira deskantsatzeko.
- **Ezezagutza.** Egoera berri baten aurrean gaude eta gauza berriak eragiten dituen egoera baten aurrean gaude, distantzia ikusten dut.
- **Stressa.** Ez zarete ados ipini behar, hala?
- **Elkargunea.** Askotan lokal kanpoaldean egoten naiz.
- **Indefentsioa.** Lo egin nahi dut eta inork ez dit kasurik egiten.

Bukatzeko partaideek elementuak borobil batean kokatu dituzte, egoera honetan elementu bakoitzak duen zentralidade maila eta garrantzia kokatu asmoz.

Hona hemen sortutako emaitza:

- Erdigunean agertzen den elementua EZEZAGUTZA da.
- Zentralidade handia duten elementu gisa ASKATASUNA agertzen da.
- Erdetik nahiko gertu ZARATA, MESPRETUXUA eta SEGURTASUNA.
- Kanpokaldean elementu hauek agertzen zaizkigu: DESKANTSUA, STRESSA, ELKARGUNEA, INDEFENTSIOA eta LASAITASUNA



*Se ha realizado una dinámica con el fin de ver como actúan y que posición creen las participantes que tienen los distintos elementos que interactúan en el fenómeno de los locales.*

*La reflexión compartida nos ha dejado esta lectura:*

- *El DESCONOCIMIENTO entre la gente es el elemento que más centralidad tiene.*
- *La LIBERTAD es otro elemento que cobra mucha importancia.*
- *Otros elementos que se sitúan cercanos al centro son: el RUIDO, el DESPRECIO y la SEGURIDAD.*
- *Los elementos que el grupo ha situado que tienen poca presencia son los siguientes: el DESCANSO, el STRESS, el PUNTO DE ENCUENTRO y la TRANQUILIDAD.*

---

## 5. GOGOETARAKO GALDERA

---

Saioa bukatzeko partaideei gogoetarako galdera bantu zaie paper batean.

Honakoa dio galderak:

**ZER EGIN DEZAKET GUZTION BEHARRAK ASETUKO DITUEN ESPAZIO KOMUNA SORTZEKO?  
ZER ESKAINTZEKO PREST NAGO?**

---

## **6. TALDE ERAGILEA**

---

Saioa amaitu aurretik prozesu honen jarraipenerako sortu den talde eragilerako gonbitea gogorarazi da eta partaideei bertan parte hartzera animatu zaie.

Talde eragilea prozesu honetan parte hartuko duten aldean artean osatuko den mahaia da. Mahai honen funtzioa prozesuaren fase desberdinetan erabiliko den diseinu metodologikoa adostea izango da, prozesuaren jarraipena egitearekin batera.

Talde eragilearen lehenengo bilera **otsailaren 18an** izango da, arratsaldeko 18:30etan udaletxean.

---

## **7. ELKARBIZITZA PROIEKTU PILOTOAK**

---

Egitasmo honekin lotura duen esperientzia baterako gonbitea egin da dinamizaziotik saioa bukatu aurretik.

Fenomeno honen oinarria harremanak dira eta elkarbizitzari garrantzi berezia eskaini nahi zaio, honegatik dinamizaziotik gazte eta bizilagunen arteko elkarbizitza hobetzeko proiektu pilotoak martxan jartzeko aukera azaldu da.

Proiektu honen helburua komunitate baten barruan bizi diren pertsonen arteko elkarbizitza hobetu eta elkartasun sareak sortzea da.

Pertsonen artean nolako laguntza eta harremana sustatu daitekeen aztertze bileraren bat egitea litzateke asmoa, pertsonen artean ikusten zertan eta nola lagundu diezaioketen elkarri.

Interesa duten pertsoneri abisua eman dezatela eskatu zaie.

---

## **8. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK**

---

Dinamizatzaileak hurrengo hitzorduak gogoratu dira: talde eragilez gain, hurrengoa 2.Saio bateratua izango da bizilagun, jabe eta adin txikikoen gurasoekin batera egingo da **Otsailaren 25ean, arratsaldeko 18:30etan**Gaztelekuan.

**Hitzaldia.** "GAZTE LOKALEN FENOMENOA. AISIALDI ETA SOZIALIZAZIORAKO GUNE BERRIAK". Gazte lokalen fenomenoaren inguruan EHUKo Soziologiako departamentuan Gasteizen egindako ikerketako arduradun izandako Diego Carbajo eta Benjamin Tejerinak fenomeno hau ulertzeko hitzaldia emango dute **Otsailaren 28an goizeko 10etan Gaztelekuan.**

*La próxima reunión conjunta será el día 25 de febrero a las 18.30 en el Gazteleku.*

## 9. SAIOAREN BALORAZIOA

Partaideei gaurko saioa hiru aspektuen arabera baloratzea eskatu zaie.

- ✓ Egondako giroa
- ✓ Erabilitako metodologia
- ✓ Landu diren edukiak

Hona hemen partaideek egindako balorazioak:

	LAN EGITEKO MODUA	BILERAKO GIROA	SORTU DIREN EDUKIAK
😊	Xxxxxx xxx	Xxxxx	Xxxxxx xxx
😐	X	XXXXX	X
😞			

**Saioan parte hartu izanagatik eskerrak emanez, bukatutzat eman da bilera 2015eko otsailaren 11an, 20:45etan.**